

EMAKUME ERRENTERIAN BATEN XVIII. MENDEKO BI EUSKAL ESKUTITZ

INAZIO CARRION
LUIS MARIA MUJICA

EUSKARAZKO bi eskutitz edo karta hauek Errenteria-n idatzi ziren, itxuraz, bigarrenak, behintzat, idazpuruan «Renteria, 13 de julio de 1791 as» epigrafea baidarama. Behan ematen diren fitxa-zehaztapenez (bigarrenak AGG, Cor, Uria, Civ, 2.620 (1798), f. 117 fitxa du) Gipuzkoa-ko Artxibategi Nagusian aurkitu dira, beste agiriaren tartean. Lehen eskutitzak eskuin alboan 1791. urteko **corpus-egunean** idatzi zelakoaren adierazpena du.

XVIII. mendeko hondarreko bi euskal eskutitz hauek irakurrita hurrengo ohar linguistikoak egin daitezke:

1. Idazle, probableki, giputza dela, idazkia **gipuzkerazko** dialektoaz egin dagoelako goi-nafarreraren tindu axaleko batzuez (adibidez, **liburua/livruba** anaptixirik gabe, itxietara etxeetara ordez). Aldi honetatik Errenterian garaiko euskaratzat har daiteke.
2. Idazkian gipuzkeraren (eta kostaldeko euskararen) fonetismo zenbait azaltzen dela bokalismoaren tratamenduan (**moducua, orrelacuarequin, beriala**; berdin kontsonante batzuen trataeran **biraldu, cesquirala** (zizkidala), **bedorren, dituran** (ditudan). Diptongoen murriztura arrunta **descat** kasuan, **dauzkat** ordez).

3. Bestalde, gaur arkaismo gertatzen den kasu zenbait, duela, hala nola **urrikaldu** (errukitu) eta, batez ere, **gazitatu** (advertir, latineko **castigare**), lapurteran egun entzun daitezkenez.
4. Txistukarien nahasmendu nabaria: **esagutuco, isan, ditese-la, suri, nais**.
5. Afrikazio-eza: **Eracuzi** (erakutsi), **usico** (utzikō), **esait** (etzait), **galcera** (galtzera), **escacen** (eskutzen).
6. Josera edo sintaxi erromanikoaren islada kausatiboaren edo zergatikoaren perpausan: «...cergatic ichian guenau-can orrelaco contuac...».

Bigarren eskutitzean, batez ere, nabariz du idazkariak, kezuzko sentimena itsas-ertzeko arazo bat dela-eta. Bertan **karbarra** eta **garraiozko** itzaien aipua egiten da, azkenean etsipenezko sentimena nagusi delarik («berac gueiago eraman suen aren icenean izan ditesela»).

AGG, Cor, Uria, Civ, 2.620 (1798), f. 116.

(Ertzean).

Esta carta sin fecha se escribió en los días inmediatos a la octava del Corpus Christi de 1791 as.

116

Anaya nōñiatu nais Octava egunē
an bedorrec Tauron eracuzicien pape-
xa de la Sur Contuac biraldulcer-
quigun moducua conion nic oxlerca-
con Oxela cuarequin Contuac giratu
biar bacizan ac paldi gure Contuac
giratuac egongo cixan Cergatic ichian
guenau-can orrelaco Contuac Contu
general baque cōn egungo dizan
eta oric escacen descāt or. equin batean
Tauron Obegui enteraditecen papec biaz
ducion berac contugucion Librubā Taur
Contuac basecan Contu general acan
Credua Tauron biaz eragutuco zuten
aliquere lasterrena biaz biazquit
escacen dituran Contu oric chulizula
bedorren anaya Agutina...

Fitxa osatua sin fecha de escritura en los días inmediatos a la octava de Corpus Christi de 1791 as.

117

Renteria 13 de Julio de 1791 a.^o

Erreia Cor egundie mundugucia eraton cixamma
anaya galcera urico ermituela aco
Chorruquecuarequin egundiazar demostriacionarequin
Peradumbre andia artuac mago erait urricaleen
nic eta nese hurre tristia mundugucia eranta
conuen simitatu co culpa guaiago baque peradum-
bre oric emango cerquirala bada Anatalaren
oncia bedorrec partipatu beela Cabazaquin ecara
eta beriala bira izuna Torada izaioc Tazocuten
idietara eta onain Cabaza erdibat dago Contu
Tauroncuac badagui cerculparequin peroc daz-
marquigun berac gueiago eramanuen anomicen
anizanditerela bedorren Azeba.

Erreia

(Texto).

Anaya notisiatu nais octava egunean bedorrec jaunoi eracuzi cien papera dela suri contuac biraldu cesquigun moducua es nion nic oirlescacen orrelacuarequin contuac giratu biar baciren aspaldi gure contuac giratuac egongo ciran cergatic ichian guenaucan orrelaco contuac contu generala bague ecin eguingo diran eta oriec escacen descat oriequin batean jaunoc obequi entera ditecen Pepec biraldu cion bere contu gucien libruba Juan Estevanec baseucan contu general oretan enredua jaunoc biac esagutuco zuten aliquere lasterrena bidal bizaquit escacen dituran contu oriec eta livruba.

Bedorren arreba Agustina.

AGG, Cor, Uria, Civ, 2.620 (1798), f. 117.

Rentería, 13 de julio de 1791 as.

Anaia cer eguin dit mundu gucia esaten cidan anayac galcera usico es niñuela azo chanuqueruarequin eguin diran demostracioarequin Pesadumbre andia arturic nago esait urricalcen niri eta nere hume tristiai mundu guciac esanta es nuen sinistatuco culpa guciago bague pesadumbre oriec emango cesquirala bada Arratolaren oncia bedorrec gastigatu becela cabarraquin ecarri eta beriala biña iruna jornada izaiac jaso zuten ichietara eta oraiñ cabarra erdi bat dago costan jaingoicucac badaqui cer culporequin penoc daramasquingun berac gueiago eraman suen aren icenean izan ditesela.

Bedorren arreba Agustina.

TXANBENAT (JAUN BENAT) dala ta bi ipui

JUAN GARMENDIA LARRANAGA

KONJURUA FRAILLEAREN AURKA

Oiartzungo **Legarre** etxea konbentua zan, bertan frailleak bizitzen ziran eta auetako bat **Txanbenat** izenarekin ezagutzen zuten.

Txanbenat-ek eta parroko erretoreak alkarren arteko ezpak izaten zituzten.

Bein batean **Txanbenat**-ek erretoreari esan zion nola alako egunean lruñera joan bear zun. Au entzunik, erretoreak onela erantzun zion: **A, bai, ondo, ondo, biajea egin ondo.**

Txanbenat-eri iritxi zitzaion bidean jartzeko eguna, eta egun artan erretoreak konjuratu zun arri jasa fraillearen bizkarrera erortzeko.

Txanbenat-ek ikusi zun eguraldiaren aldaketa, eta geroxeago igarri zion bere gaiñean zula eraso, pentsatuaz au erretorearen lana zela. Ordun etxe aldera itzuli zan eta baserri baten bei larru bat eskatu. Eman zioten larrua hurutik beera jarri zun eta erretorearen sagastira laisterka jo zan. Sagastia loretan zegoan eta **Txanbenat** arbola azpitik azpira ibili zan, sagar lore guztik txikitu arte.

Ekintza au amaitu ondoren lruñerako bidea berriro artu zun, eta itzuli zanean erretorearekin topo egin zun, eta onek galdetu zion: **Ondo egin al dezu biajea?**, eta **Txanbenat**-ek erantzun: **Bai, oso ondo; eta zuk nola daukazu sagastia?** **¡A!, ez dakit, aspaldian ez naiz izandu. Ba joan egin bear zenduke eta ikusi nola dagon, frailleak esan zion.**

Erretorea sagastira joan zan eta au dena txikituta ikusi zun, aldiberean pentsatuz: **Orri - Txanbenat**-eri, ain zuzen - **iñork ez dio pegatzen.**

TXANIBET, ETSAIA ETA AITA SANTUA

Txanibet bere amaren etxean arkitzen zan, au taloak erretzen ari zala.

Amak semea bazijoala ikusirik, onela mintzatu zitzaion: **Motel, nora ua?, afaritako taloak erretzen ai naiz.** Au en-

tzunik, semeak erantzun zion: **Bai, bai, erre; bereala etorriko naiz.**

Txanbenat-ek deabru bateri dei egin zion galdetuaz zenbat denboran egingo zuan Erromatik biajea. Etsaiaren erantzuna au izan zan: **Bi minutun. Ez aiz neretzako ona**, esan zion **Txanbenat**-ek, beste deabru bateri galdera berdiña egiñez. Onek jakinarazi zion minutu baten Erromatik joanetorria egingo zuala, baiña **Txanbenat**-ek oni ere berdin adierazi zion: **Ez aiz neretzako ona.**

Txanbenat-en jakiñeko galderari, irugarren deabruak onela erantzun zion: **Emen orduko an; eta an orduko emen. Bai, i aiz neretzat ona**, esanez, **Txanbenat** bat etorri zan, aldiberean kapa jantzi eta etsaiaren gaiñean jarri zan, deadarkatuaz: **Alzate diablo, vete a Roma.**

Erromara iritxi ziren eta Txanbenat-ek Aita Santuaren etxeko atean jo zun. Atezaiak galdetu zion zer nai zun, eta **Txanbenat**-ek jakinarazi zion Aita Santuarekin egon nai zuala. Atezaiak erantzun zionean ezinezko gauza zala ori, afaldar batekin maiean arkitzen zelako, bisitariak adierazi zion maiaren neurria artu besterik etzuala nai, eta au entzunik atezaiaren baiezkoa lortu zun: **Ori besterik ez badezu, pasa zaitex, esanez.**

Txanbenat urbildu zan Aita Santuarengana eta maiaren gaiñera bastola bota zun, luzeka eta zabalka, kurutzea egiñez. Aldiberean afaldarra izkutatu zan eta Aita Santuak igarri zion bere laguna deabrua zala.

Txanbenat etxera itzuli zanean, amak taloak erretzen jarraitzen zun eta semearen kapa elurrez beteta ikusirik, galdetu zion: **Motel, nun ibili aiz? Ai ama, ama, Jakako portuan elurra galanki ari du, Txanbenat**-ek erantzun zion. Gero, amak bere semeari taloa eta esnea atera zizkion ¹ (Zerbait aldatuta, antzeko ipuia irakurri eta entzutea izan det).

OHARRA

¹ Erreterian (Zamalbide Auzoa): Antonia Auzmendi - 74 urte - eta Salvador Yarzabal Berra - 87 urte. **Lubelta Berri** baserria. 89 - 4 - 9 an.